

BETIDANIK, BETIRAKO, EUSKARA

Badator berriz ere gure herri eta hirietako kaleak zeharkatuko dituen indar euskaldun geldiezina. Badator bularrean sentituko dugun ilusio hori furgonetaren hotsa gertutik entzutean. Korrika ez da lasterketa soil bat; gure nortasunaren aldarrikapena da, euskaldunen ahotsa ozen entzuteko aukera ezin hobea. Aurten 24. aldiz ospatuko dugu denok batera, lekukoa alde batetik bestera pasatuz, eta Atharratzetik Bilbora milaka lagun elkartuko dira. Baina garrantzitsuena ez da egurra bera, barruan daraman maitasun mezua baizik, aurtengo abestiak esan bezala: ***gure hizkuntzak bizirik nahi gaitu eta guk hura ere bai. Euskara gara.***

Sarritan esan ohi dugu euskara altxorrik handi eta baliotsuena dela. Baina altxorrek, kutxa itxi baten barruan gordetzen direnez, denborarekin herdoildu eta galdu egiten dira. Hau al da guk euskarari gertatzea nahi duguna? Hizkuntza bat erabiltzeko, arnasteko eta batez ere partekatzeko da. Zer izango litzateke edozein hizkuntza hedatuko ez balitz? Korrikak hauxe erakusten digu bi urtez behin: norbanakoaren ahaleginak auzolanean batzen ditugunean olatu geldiezina sortzen dugula. Ez dago pauso txikirik ezta akatsik ere, kilometro bakoitza, metro bakoitza eta euskaraz ari denaren hitz bakoitza da gure herriaren motorra.

Honengatik guztiagatik, gure Euskal Herri kuttunarengatik, bihotz-bihotzez oihuka dei egiten dizuegu guztioi: gazte zein heldu, euskaldun zahar zein berri, herrian jaio zaretenoi eta munduko beste txoko urrunetatik gure artera bizitzera etorri zaretenoi. Zatozte gurekin, egin dezagun bat bidean! Izan ere, ekimen honek ez du korrikalari profesionalik behar, ez dugu erlojuaren aurka markarik hautsi nahi. Gure helburua ilusioz betetako bihotzak eta euskaraz bizitzeko nahia duten herritar euskaldun nekaezinak biltzea da.

Erakuts diezaiogun mudi zabalari gure hizkuntzak ez duela mugarik. Erakuts dezagun herriz herri, pausoz pauso, herri honek baduela norabide argi eta garbi bat: euskara kalean, jolasean, etxean, lagun artean eta pantailen aurrean. Euskara, gure bizitzaren erdigunea, lekukoak kilometroz kilometro, urtez urte gelditu gabe aurrera jarrai dezan. Ez begiratu soilik korrikak sortzen duen olatua; izan zaitez olatuaren parte. Hartu arnasa sakon, lotu ondo zapatilak, irten kalera beldurrik gabe eta batu zaitez gurera, euskarara!

Tipi-tapa-tipi-tapa, pauso bakoitzarekin eraiki dezagun mundu euskaldun bat

EUSKARA GARA

Zubiri-Manteon, 2026ko martxoaren 24an